

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Elizalde kontseilariak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako "Nafarroako gune naturalak" Argazki eta Bideo Lehiaketako sariak banatu ditu

*Argazkien arloan, sariak Garazi Dominguezek (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. kategorian) eta Izaro Maraurik (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. kategorian) jaso dituzte; mikrobideoetan, berriz, lehen saria Rebeca Aineto eta Inka Lorenterentzat izan da eta bigarrena Jon Garcíaentzat*

Asteartea, 2018.eko otsailak 6

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilaria den Isabel Elizalde gaur arratsaldean banatu ditu Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako "Nafarroako gune naturalak" Argazki eta Bideo Lehiaketako sariak, Iruñako Departamentuaren egoitzan egindako ekitaldian zehar.



Elizalde kontseilaria saritutako ikasleekin eta ikastetxeetako irakaslegoarekin.

Hautatutako lanak Nafarroako Gobernuo [Ingurumen Departamentuaren web orrialdean ikus daitezke](#)

**Argazkiei** dagokienez, aurtengoa lehen edizioa izan da, "Ezagutu Nafarroako gune natural babestuak" izenekoak, eta 30 parte-hartzaile aurkeztu dira. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. kategorian, "Bernat Etxeparen" Ikastetxe Publikoko Garazi Dominguez izan da irabazlea, "Irristatu Belaten" lanarekin. Beste lan batzuk Santa Catalina Labouré ikastetxetik (Iruña) eta Patxi Larrainzar Ikastolatik (Iruña) aurkeztu dira.

Halaber, argazkien arloan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. modalitatean, Erentzun Ikastolako (Viana) Izaro Maraurik irabazi du saria "Lainoa oso baxua dago" obrarekin. Beste lan batzuk Patxi Larrainzar Ikastetxetik, Santa Catalina Labouré ikastetxetik eta Erentzun Ikastolatik aurkeztu dira..



Bi kategoriatan, tableta eta diploma eman zaizkie eta naturari buruzko liburu-sorta ikasketak egiten ari diren ikastetxearentzat.

Garazi Dominguezen Irristatu Belaten saritutako argazkia.

Bestalde, **Mikrobideoen** lehiaketaren bigarren edizioa egin da aurten, "Nafarroako gunee natural babestuen erabilera" izenburupean, eta 6 mikrobideo aurkeztu dira.

Lehen saria Erronkariko Bigarren Hezkuntzako Institutuko Rebeca Ainetok eta Inka Loretek jaso dute "Erronkariko ibaxako babestutako naturaguneak" lanaren truke. Hain zuzen ere, tableta eta diploma jaso dituzte, eta ikastetxeari HD bideo-kamera eta naturari buruzko liburu-sorta eman zaizkio.

Bigarren saria Tafallako Eskolapioak Ikastetxeko Jon Garcíarentzat izan da, "Nafarroan naturaz gozaten" lanari esker. Ikastetxeak HD bideo-kamera eta naturari buruzko liburu-sorta jaso ditu.

Beste lanak Los Llanosko BHI Institututik (Lizarra), Argia Ikastolatik (Tutera) eta Teresar Eskolatik (Iruña) aurkeztu dituzte.

## Galería de fotos



Izaro Marauriren Lainoa oso baxua dago.